

## **BCC lankidetzan ari da Latinoamerikako Ñam Sukaldaritza Jaialdiarekin, eta ekintzailetzari buruzko lantegia antolatu du**

2015/04/15

Basque Culinary Centerren ordezkari bat dago Txilen, bi arrazoi direla medio. Batetik, bere burua ezagutzera ematea eta Txileko Biltzar Gastronomiko garrantzitsuenean eta Latinoamerikako garrantzitsuenetako batean txosten bat aurkeztea. Bestetik, esparru horretan sukaldaritza-ekintzailetza sustatzea, Culinary Action! lantegiaren bidez.

Horrela, apirilaren 15ean, asteazkenean, Ñam jaialdian Basque Culinary Centerrek bere proiektua aurkeztuko du, jada gastronomian, prestakuntzan eta ikerketan nazioarteko erreferentzia dena. Gainera, Basque Culinary Centerreko Diego Prado irakasle txiletarrak Berrikuntza Sukaldaritzari buruzko hitzaldi bat emango du foroan bertan. Fakultatea biltzar honen partner akademikoa izango da, eta biltzarra Txileko Santiagon egingo da apirilaren 14tik 18ra bitartean.

(Gehiago irakurri)

